		GUZTIRA TOTAL	114.213	12.090	18.176		18.075	41.944	22.620	1.308	



Sarrerren Laburpenak
Resúmenes de Ingresos

Administrazio Orokorra
Administración General

SEK.,PROGR. ETA KAPIT.EN ARABERAKO LABP. - SARRERA
RESUMEN POR SECCIÓN; PROGRAMA Y CAPÍTULO - INGRESO

ORGANIKOA / ORGANICA

EKONOMIKOA / ECONOMICA

FUNTZIONALA / FUNCIONAL

11 Ingurumen eta Lurralde Antolamendua


11 Medio Ambiente y Ordenación del Territorio

MILA / MILES

SEKZIOA SECCION	PROGRAMA PROGRAMA		GUZTIRA TOTAL	KAPITULUAK CAPITULOS						
				2 Zeharkako zergak Impuestos indirectos	3 Tasak eta salneur. Tasas, prec.públ.	4 Transf. arruntak Transfe. corrientes	5 Ondare sarrerak Ingresos patrimon.	6 Inb. err. besterentz Enaj.inver reales	7 Kapital transf. Transfe. capital	8 F-aktiboen gutxitzea Dism.acti. financie.
11		Ingurumen eta Lurralde Antolamendua <i>Medio Ambiente y Ordenación del Territorio</i>								
11	4313	Lurralde Antolamendua <i>Ordenación Territorial</i>	208							208
11	4420	Egitura eta Laguntza <i>Estructura y Apoyo</i>	4				4			
11	4421	Ingurumenaren Babesa <i>Protec.M.Ambie.</i>	449		49				400	
11	5121	Uraren Plang. <i>Pla.A.Hidrául.</i>	1.765		1.759		6			
		GUZTIRA TOTAL	2.427		1.808		10		400	208



12 GARRAIO ETA HERRI LANAK
12 TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS



Sekzioaren eta Programen Memoriak
Memorias de la Sección y de los Programas

GARRAIO ETA HERRI LANAK**TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS**

Garraio eta Herri Lan Sailak 2007an burutuko dituen lanek, aurreko ekitaldian abiarazitako ildoari jarraituz, Garraio Iraunkorraren Gidaplanak erakutsitako bidetik jarraituko dute. Gidaplanak Europako Garraioaren Liburu Zuriak Europarako egindako gomendioak eta nazioarteko beste batzuk biltzen digu (Kiotoko protokoloa eta Lisboako estrategia), bai eta erkidego mailakoak ere (Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen-estrategia eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Ingurumeneko Esparru Programa).

Hona hemen Garraio Iraunkorraren Gidaplanaren helburu nagusiak:

- Ekonomiaren hazkundearen eta garraio-eskariaren hazkundearen arteko erlazioa etetea.
- Irisgarritasun unibertsala eta iraunkorra lortzea.
- Garraibideen arteko oreka berri bat bultzatzea.
- Euskadik Europan hartzen duen leku estrategikoa bultzatzea.
- Ingurumena errespetatuko duen garraio iraunkorreko eredu baterantz aurrera egitea.

Helburu horiek lortzeko, Planak hainbat estrategia eta ekintza-lerro ezartzen ditu:

- Trenbide-sare berria eraikitzeari lehentasuna ematea, dagoeneko lotu baita akordioa Estatuko Administrazioarekin (2006ko apirilaren 24an sinatu zuten bi administrazioek lankidetzahitzarmena).
- Tranbien programa garatzea, eta horretarako Vitoria-Gasteizko tranbiako obrak egitea, Bilboko tranbia handitzea, eta Debagoieneko, Leioa-Unibertsitateko eta Donostia-San Sebastiano tranbietarako proiektuak egitea.
- Bilboko Hiri Trenbidearen 2. lineako obrekin jarraitzea, eta 1. linean hobekuntzak burutu eta Etxebarri-Alde Zaharra konexioa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarena den eta Eusko Trenbideak SA sozietateak ustiatzen duen trenbide-sarea modernizatzea, trenbidea bikoiztuz, geltoki berriak eginez, trenbidean lurpean sartuz eta trenbide-pasaguneak kenduz.
- Garraio sektorea modernizatzeko jarduketak, kalitatea eta lehiakortasuna hobetzeko eta teknologia egokitzeko.
- Euskadiko Garraio Behatokia eta Agintaritza bultzatu eta garatzea.
- Garraibideen bestelako oreka bat bultzatzea, errepideko trafikoa trenbidera edo itsas garraiara bideratzeko.
- EAEko Administrazioaren portuen eraginkortasun mailari eustea, merkataritza, arrantza nahiz kirol-nabigazioko portuetan lehen egindakoak zaintzeko lanak eta inbertsio berriak burutuz.

Las actuaciones del Departamento de Transportes y Obras Públicas para el año 2007 seguirán, en la línea ya iniciada en ejercicios anteriores, las pautas recogidas en el Plan Director del Transporte Sostenible, documento en el que se aúnan las recomendaciones en materia de transporte tanto a nivel europeo e internacional: Libro Blanco del Transporte, Estrategia de Lisboa y protocolo de Kioto, como a nivel autonómico: Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible y Programa Marco Ambiental.

Tal y como se recoge en el Plan Director del Transporte Sostenible, los objetivos básicos son:

- Desvincular el desarrollo económico del incremento de demanda del transporte.
- Lograr una accesibilidad universal y sostenible.
- Impulsar un nuevo equilibrio de los modos de transporte.
- Potenciar la posición estratégica de Euskadi en Europa.
- Avanzar hacia un modelo de transporte sostenible y respetuoso con el medio ambiente.

Para la consecución de dichos objetivos el Plan establece una serie de estrategias y líneas de actuación que en la práctica se concretan en:

- Priorizar la construcción de la Nueva Red Ferroviaria Vasca tras los acuerdos alcanzados con la Administración del Estado, plasmados en el convenio de colaboración firmado entre ambas Administraciones el 24 de abril de 2006.
- El desarrollo del programa tranviario con las obras del tranvía de Vitoria-Gasteiz, la ampliación del tranvía de Bilbao y los futuros proyectos de otros tranvías como el del Valle del Deba, Leioa-Universidad o Donostia-San Sebastián.
- La continuación de las obras de la línea II del Ferrocarril Metropolitano de Bilbao así como la ejecución de mejoras en la línea I y la futura conexión Etxebarri-Casco Viejo.
- La modernización de la red ferroviaria de titularidad de la Comunidad Autónoma Vasca en las líneas explotadas por Eusko Trenbideak, S.A. a través de desdoblamientos de vías, nuevas estaciones, soterramientos y supresión de pasos a nivel.
- Actuaciones tendentes a la modernización del sector del transporte para mejora en calidad, competitividad y adaptación a las nuevas tecnologías.
- El impulso y desarrollo del Observatorio y la Autoridad del Transporte de Euskadi.
- El fomento del reequilibrio modal a fin de trasvasar tráfico de las carreteras al ferrocarril y al barco.
- El mantenimiento del nivel operativo de los puertos de titularidad de la C.A.P.V., a través de las acciones de conservación y de nuevas inversiones tanto de carácter comercial, como pesquero y náutico-deportivo.

- Eguraldiaren behaketarako sarea mantendu eta hobetu, gizarteari gero eta kalitate hobea eta informazio gehiago eskaini ahal izateko.

GARRAIOAK.

Garraio Zuzendaritzak 2007an izango duen ardura nagusia Garraio Iraunkorraren Gidaplanaren zuzentzarauak zehaztea izango da, eta horrekin batera egindakoen ebaluazio eta jarraipena burutzea. Horretarako ekintza sorta bat burutuko du, Gidaplanak aurreikusitako estrategia eta ekintza-lerroen haritik, ezarritako helburuak pixkanaka lortuz joateko.

Gidaplanaren arabera, gizartea eta lurraldea kohesionatzeko gaitasuna duen oinarritzeko sektore estrategiko bat da garraioa; Euskadi inguruarekin ekonomia, gizarte eta kultura aldetik erlazionatzeko tresna bat.

Burutuko diren jarduketak horiekin "Euskal Hiria" edo euskal hiri-eskualdea kontzeptua bultzatzen lagunduko dugu; izan ere, euskal lurraldeak, garraio eta logistika azpiegiturei dagokienean, lehiakortasunerako benetan dituen abantailak baliatzen dituen etorkizunerako proiektu bat dugu Euskal Hiri hori, eta aprobetxatu eta sustatu beharra dauzkagu, Euskadik ardatza atlantikoan duen posizio estrategikoa kontuan izanik.

Hori guztia kontuan izanik honako hauek garatu nahi ditugu:

- Garraio sektorearen inguruko araudi espezifiko eta Europar Batasunaren jarraibideekiko koherente bat sortuko da; euskal trenbide sektorearen legea, kable bidezko garraioaren legea eta Euskadiko mugikortasunaren legea; gainera, Euskal Legebiltzarrak Errepideko Bidaiari Garraioaren Legea onartua duenez, Errepideko Bidaiari Garraioaren Legearen Erregelamendua onartuko da, eta indarrean dagoen bestelako araudia ere garatuko da.
- Garraio Iraunkorraren Gidaplanean jasotako helburuak, estrategiak eta ekintza-lerroak gauzatu ahal izateko Epe Jakineko Ekintzen Planarekin segituko dugu, eta jarraipena eta ebaluazioa burutuko dugu.
- Euskadiko Garraioaren Behatokia bultzatuko dugu; Behatokiak aurreikusitako jarduketak, lanak eta azterlanak egingo ditu (garraioaren estatistikari buruzko programa, azterlan sozioekonomikoak, prospekziozkoak, mugikortasunari buruzkoak, ibilgailu kolektiboaren partekatze zerbitzua, etab.).
- Euskadiko Garraio Agintaritzak bultzatuko dugu; Agintaritzak iraunkortasun-txostena jorratuko du, iraunkortasun-programak abian jartzeko lan egingo du, eta garraio zerbitzu publikoari buruzko informazioa, garraio iraunkorra, landa-eremuetarako irisgarritasuna eta tarifa-politikak bultzatuko ditu, betiere Garraio Iraunkorraren Gidaplanak egiten dituen gomendioei jarraituz. Era berean, garraio lurralde agintaritzen garapena bultzatuko da, hala nola Gipuzkoa eta Bizkaiko lurralde historikoetakoak.
- Sare Intermodal eta Logistikoaren Lurraldearen Arloko Plana izapidetu. Behin-behineko eta behin betiko onarpenerako izapidetakoak.
- Bidaiarien nahiz salgaien garraio sektorea modernizatu eta egituratzeko jarduketak (guztiak ere Garraio Iraunkorraren Gidaplanean baitatortu): hona hemen lan-eremu eta laguntza-gaiak:

- Adin aurreratuko garraiolariak lanbidea uztea.

- Mantenimiento y mejora de la red de observación meteorológica proporcionando a la sociedad una información cada vez mayor tanto en calidad como en cantidad.

TRANSPORTES.

La Dirección de Transportes va a dirigir sus actuaciones durante el ejercicio 2007 a la articulación de las directrices del Plan Director del Transporte Sostenible, así como a la evaluación y seguimiento de las ya realizadas. Para ello se prevé la ejecución de una amplia serie de acciones que puedan ir coadyuvando a la consecución progresiva de los objetivos marcados en dicho Plan, y que respondan a las estrategias y líneas de actuación previstas.

El citado plan reconoce el Transporte como un sector con valor estratégico y básico, con capacidad de cohesión territorial y social, así como un instrumento de relación económica, social y cultural de Euskadi con su entorno.

Las actuaciones a realizar contribuirán al impulso del concepto de "Euskal Hiria" o ciudad-región vasca, que es un proyecto de futuro que se apoya en las auténticas ventajas competitivas del territorio vasco en cuanto a infraestructuras de transporte y logística, que es preciso aprovechar y fomentar dada la situación estratégica de Euskadi en el Eje Atlántico.

En base a lo anterior se van a desarrollar las siguientes actuaciones:

- Dotar al sector de una normativa propia, específica y coherente con las directrices de la U.E.; Ley del Sector Ferroviario Vasco, Ley del Transporte por Cable, Ley de movilidad de Euskadi; además tras la aprobación por el Parlamento Vasco de la Ley reguladora del Transporte de Viajeros por carretera se va a aprobar el Reglamento de la Ley de Viajeros por carretera; igualmente se trabajará en el desarrollo de la normativa vigente.
- Continuación, seguimiento y evaluación del Plan de acciones temporalizadas del Plan Director del Transporte Sostenible, encaminadas a la consecución de los objetivos, estrategias y líneas de actuación de dicho Plan.
- Potenciación del Observatorio de Transporte Sostenible de Euskadi que desarrollará las actuaciones, trabajos y estudios previstos (programa de estadística del transporte, estudios socioeconómicos, prospectivos, de movilidad, observatorio de costes, car-sharing, etc.).
- Potenciación de la Autoridad del Transporte de Euskadi en la cual se trabajará sobre el informe de sostenibilidad y el lanzamiento de programas de sostenibilidad, el fomento de información sobre servicios públicos de transporte, fomento del transporte sostenible, accesibilidad rural y políticas tarifarias, todo ello en el ejercicio de las acciones que se le encomiendan en el PDTs. Asimismo se potenciará el desarrollo de las autoridades territoriales de transporte, como las de los Territorios Históricos de Gipuzkoa y de Bizkaia.
- Tramitación del Plan Territorial Sectorial de la Red Intermodal y Logística. Trámites de aprobación provisional y definitiva.
- Actuaciones de modernización y estructuración del sector del transporte, tanto de viajeros como de mercancías, las cuales se hallan englobadas en el Plan Director del Transporte Sostenible; los programas de actuaciones y apoyos previstos son:
- Abandono de la actividad de profesionales de edad avanzada.

- Enpresen kontzentrazioarako laguntzak, egitura handiagoko enpresak sortzeko.
- Elkartegintza bultzatzeko, garraio sektorearen barruan ekimenak eta ekintzak sustatzea.
- Teknologia berriak ezartzea.
- Kalitate eta ingurumen plana: garraio-enpresetan kalitate eta ingurumen sistemak ezartzea.
- Intermodalitatea sustatzea.
- Taxi bidezko bidaiari-garraioa modernizatzea.
- Logistika sektorea bultzatu eta laguntzea, garraioko oinarriko eremuak sustatuz, eta logistikako zentroei eta horiekin lotutako erakundeei (Aparkabisa eta Arasurri esaterako) laguntzak emanez.
- Kable bidezko garraioaren modernizazio eta egituraketa.
- Bilboko portuaren lehiakortasunaren hobekuntza, Bilboko Portuaren Lehiakortasunerako Ordezkarari dagozkion ekimenak martxan jarri eta eginkizunak garatuz.
- Bilbao, Vitoria-Gasteiz eta Donostia-San Sebastiango aireportuen lana sustatzen jarraitzea.
- Garraio sektoreko langileen prestakuntza: unibertsitateko graduatuen prestakuntzarako bekekin jarraituko dugu; administrazio, enpresa eta garraiolariantzat garraio eta logistikaren inguruko prestakuntzarako ikastaroak antolatu eta ekintzak koordinatuko ditugu, eta sektoreko profesionalentzako jardunaldi eta hitzaldietan parte hartu eta antolatuko ditugu.
- Salgai arriskutsuen ikuskatzaileen jardueraren jarraipenerako: gaitasuna egiaztatzeko azterketak egingo dira, prestakuntzarako ekintzak eta aktibitatea kontrolatzekoak; segurtasun-ikuskatzaileentzako webgunea eguneratuko da, (ADR-a, salgai arriskutsuen fluxuak kontsultatzeko aukera eta SITRAN informazio-sistema barne).
- Euskadik Europan hartzen duen leku estrategikoa bultzatzea: Akitania-Euskadi Plataforma Logistikoaren ekintzak sustatuko dira, hori kudeatzeko sortutako Ekonomia Intereseko Europako Taldearen bidez; Plataforma bultzatzeko, garraio sektorearen inguruko azoketan eta garraio-operadoreen eta logistikaren inguruko hainbat ekitalditan parte hartuko da, nahiz estatu barruan nahiz atzerrikoetan, Europako beste erregio batzuekin politika komunak abiaraziko dira, hainbat organo eta forotan parte hartuz, hala nola Arku Atlantikoaren Batzordean eta Periferiako eta Itsasaldeko Erregioen Konferentzian; garraioaren eta logistikaren klusterraren jarduna bultzatuko da.
- Concentración empresarial, para la creación de estructuras empresariales de mayor dimensión.
- Fomento del Asociacionismo, para impulsar las iniciativas y actividades de las asociaciones del sector.
- Implantación de nuevas tecnologías.
- Plan de Calidad y Medioambiente, con la implantación de Sistemas de Calidad y Medioambiente en las empresas de transporte.
- Fomento de la intermodalidad.
- Modernización del sector de transporte de viajeros en automóviles de turismo.
- Potenciación y apoyo al sector logístico, mediante la promoción de Áreas Básicas de Transporte y los apoyos a Centros Logísticos y entidades relacionadas, tales como Aparkabisa y Arasur.
- Modernización y estructuración del Transporte por Cable.
- Mejora de la competitividad del Puerto de Bilbao, mediante la adopción de iniciativas y desarrollo de las funciones de la figura del Comisionado para la competitividad del Puerto de Bilbao.
- Continuación en la promoción de la actividad de los aeropuertos de Bilbao, Vitoria-Gasteiz y Donostia-San Sebastián.
- Formación en el sector del transporte: continuación de las becas para la formación de graduados universitarios; realización de cursos y coordinación de acciones de Formación en materia de Transporte y Logística para administraciones, empresas y transportistas; y participación y organización en jornadas y charlas para profesionales del sector.
- Seguimiento de la actividad de los Consejeros de mercancías peligrosas, realizando exámenes de capacitación, actividades formativas y control de la actividad; igualmente la actualización de la página Web para Consejeros de Seguridad que incluye el ADR y los flujos de mercancías peligrosas On Line y Sitran.
- Programa de potenciación de la posición estratégica de Euskadi en Europa: promoción de las acciones de la Plataforma Logística Aquitania-Euskadi a través de la Agrupación Europea de Interés Económico creada para su gestión; promoción de la misma mediante la participación en diversos certámenes feriales y de los operadores de transportes en diversos eventos específicos del sector del transporte y la logística, tanto a nivel internacional como estatal; impulso de políticas conjuntas de transportes con otras regiones europeas, a través de la participación distintos órganos y foros, tales como la Comisión Arco Atlántico y la Conferencia de Regiones Periférico-marítimas; potenciación del Cluster de la Logística y el Transporte.

GARRAIOAREN AZPIEGITURA.

1. EAEn trenbide sarea.

INFRAESTRUCTURA DEL TRANSPORTE.

1. Red Ferroviaria de titularidad de la C.A.P.V.

2007a izango da Red Ferroviaria Vasca–Euskal Trenbide Sarea ente publikoa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eskumeneko sarean egin beharreko obrak kontratatzeko eta azpiegiturak kudeatzeko ardura guztia izango duen lehen urte osoa, entea maiatzaren 21eko 6/2004 Legearen bidez sortu baitzen. Horiek horrela, Eusko Trenbideak SA, berriz, trenbide garraioko operadore bihurtu da, eta garaia heltzen denean beste enpresa batzuekin lehian jardungo du.

Trenbideko garraioa hobetu eta sustatzea helburu nagusizat hartuta, horren barruan azpimarratu beharrekoak dira trenbidea bera, instalazioak eta sistemak berritzeko egindako ahaleginak, horri esker tren gehiago ibiltzeko modua egin baita, eta segurtasuna ere handiagoa baita orain (trenbide-pasaguneak kentzearekin, etab.), eta, beraz, erabiltzaileei eskaintzen zaien zerbitzuaren kalitatea hobetzea lortu baita. Horrela, ETS ente publikoaren bidez, Bilbao-San Sebastián-Irun trenbidea bikoizteko lanean jarraituko dugu, Amorebieta-Durango, Traña-Berriz, Eibar, Añorga-Errekalde, Loiola-Herrera eta Errenteria-Oiartzun tarteetan, eta Durangon geltokia lurperatzeko lanean segituko dugu. Bereziki aipatzea merezi dute hainbat geltoki egiteko edo zeudenak berritzeko laneak: Ardantza (Eibar), Fandería (Errenteria) eta Oiartzun. Bilbo inguruan, berriz, Artxandako tuneleko eta Bilboko Hiri Trenbidearen (Etxebarri-Alde Zaharra) proiektuak azpimarratu behar dira. 2007an trenbide-pasaguneak kendu edo hobetzen jarraituko dugu Ermuan (Izelaieta kalean) eta Aian, eta Eibarren (Txarrakoa) eta Oiartzunen pasaguneak kentzeko lanean hasiko dira.

Tranbiei gagozkielarik, Vitoria-Gasteizko obrekin jarraituko dugu eta Bilboko Basurto-Errekaldeko tartekoei ekingo zaie.

Aurtengoan Donostialdeko, Debagoieneko eta Nerbioi Behereko tranbiak eraikitzeke proiektuak idazteko lanean gogotik egingo da aurrera.

Trenbiden arloko jarduketak pixkanaka ETS-k hartuko ditu ere bere gain.

2. EAEko trenbide sare berria.

2007an 2006.ean Estatuko Administrazio Orokorrekin EAEko trenbide-sare berria garatzeko sinatutako hitzarmenak garatuko dira; hitzarmen horien ondorioz, Eusko Jaurlaritzak trenbide-sare berriaren Gipuzkoako zatiko proiektuak idatzi eta obrak egingo ditu, hasi Bergaran 9+000 PK-tik eta Iruneraino (Donostia-San Sebastianen sartzeko zatia barne).

3. Bilboko Hiri Trenbidea.

2007an BHTaren 2. lineako Urbinaga-Portugalete eta Portugalete-Santurtzi, Santurtzi-Kabiezes eta Ariz-Basauri sektoreetako eraikuntza eta ekipamendu kontratuekin segituko dugu. Ildo horretatik, Sestao-Portugalete eta Portugalete-Santurtzi bideguneetako obra zibilak eraikitzeke laneak aurrera egingo dute, eta Urbinagako aldagunea eta Maidagango sarbidea eraikitzeke ekingo zaio, gainera. Aldi berean Portugalete-Santurtzi sektoreko ekipa elektromekanikoak (sarrera mekanizatuak eta instalazio elektromekanikoak) fabrikatu eta instalatzen jarraituko dugu. Lan horien zuzendaritza teknikoa Eusko Trenbide Sarearen sozietatearen ardura izango da.

Azkenik, Getxon Maidagango trenbide-pasagunea kentzeko lanei ekingo zaie.

El 2007 será el primer ejercicio completo en el que en el ente público Red Ferroviaria Vasca–Euskal Trenbide Sarea (ETS), creado mediante Ley 6/2004, se hará descansar la contratación de las diferentes obras a realizar en las redes competencia de la C.A.P.V., así como la gestión de las mismas, de tal manera que la empresa Eusko Trenbideak, S.A. se ha convertido en un operador de la red ferroviaria, que en su momento podrá entrar en competencia con otras empresas.

Dentro del objetivo general de mejora y potenciación del transporte ferroviario, destacan los esfuerzos realizados en renovación de vía, instalaciones y sistemas que han permitido mejorar de forma significativa las frecuencias de circulación y aumentar la seguridad del medio (supresión de pasos a nivel, etc.), incrementando la calidad del servicio prestado a los usuarios. Así, y a través del ente público ETS, se continuará desdoblado la vía Bilbao-San Sebastián-Irún, en los tramos Amorebieta-Durango, Traña-Berriz, Eibar, Añorga-Rekalde, Loiola-Herrera y Errenteria-Oiartzun, además de proseguir con el soterramiento de la estación de Durango. Mención especial tendrán, entre otras, las nuevas estaciones y/o reformas de Ardantza (Eibar), Fandería (Errenteria) y Oiartzun. En las cercanías de Bilbao destacar los proyectos del túnel de Artxanda y la línea 3 de Ferrocarril Metropolitano de Bilbao (Etxebarri-Casco Viejo). Durante el año 2007 se proseguirá con la supresión o mejora de los pasos a nivel en la Calle Izelaieta (Ermua y Aia, iniciándose durante el ejercicio 2007 las obras de supresión de los pasos a nivel de Eibar (Txarrakua) y Oiartzun.

En materia de tranvías, se continuarán las obras de construcción del Tranvía de Vitoria-Gasteiz y el tramo Basurto-Rekalde del Tranvía de Bilbao.

Especial desarrollo tendrá la redacción de proyectos de construcción de tranvías en Donostialdea, Alto Deba y Bajo Nervión.

Las actuaciones en materia de tranvías irán siendo también asumidas paulatinamente por ETS.

2. Nueva Red Ferroviaria de la C.A.P.V.

Durante el año 2007 se desarrollarán los convenios firmados durante el año 2006 con la Administración General del Estado para el desarrollo de la Nueva Red Ferroviaria del País Vasco (Y Vasca), de tal manera que el Gobierno Vasco redactará los proyectos y ejecutará las obras del ramal guipuzcoano desde el p.k. 9+000 en Bergara hasta Irún (incluido el tramo que acomete la inserción en Donostia-San Sebastián).

3. Ferrocarril Metropolitano de Bilbao.

Durante el año 2007 se proseguirá con el proceso de construcción y equipamiento de los sectores Urbínaga-Portugalete, Portugalete-Santurtzi, Santurtzi-Kabiezes y Ariz-Basauri de la línea 2 del Ferrocarril Metropolitano de Bilbao. En este sentido se continuarán los contratos de construcción de las obras civiles de los tramos Sestao-Portugalete y Portugalete-Santurtzi, iniciándose en el ejercicio 2007 la licitación del tramo Santurtzi-Kabiezes, las obras de construcción del intercambiador de Urbínaga y el acceso a Mamariga. Simultáneamente, se encontrarán en proceso de fabricación e instalación los equipos electromecánicos del sector Portugalete-Santurtzi, (Accesos mecanizados e instalaciones electromecánicas), todo ello con la dirección técnica del ente público Red Ferroviaria Vasca–Euskal Trenbide Sarea.

Finalmente, se acometerá la eliminación del paso a nivel de Maidagan en Getxo.

Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzak gainera, Bizkaiko Garraio Partzuergoak idatzi beharreko gainegitura eta ekipamendu proiektuak onartzeko urratsak burutuko ditu, Partzuergoak lehiaketarako deia egin ahal izan dezan.

Bestalde, Bizkaiko Garraio Partzuergoa kudeatzeko organoetan parte-hartze aktiboa izaten jarraituko dugu.

4. Errepideen plangintza eta azpiegiturak.

1999-2010 eperako Errepideen Plan Orokorra indarrean dagoen honetan, legeak ezarri bezala, oraingoan berrikusketara onartu beharko da.

Gainera, Errepideen Egitamu Nagusia araupetzeko Legea berriro aldatzea aurreikusten da, Planaren gai den sarean izandako aldaketak jasotzeko.

Horretaz aparte, errepideen gaineko araudi teknikoa garatzen jarraituko dugu, indarrean dagoen araua, maiatzaren 30eko 2/1989 Legea eguneratzeko asmoarekin.

Altzairugintzako zepak errepideetan erabiltzeko saiakuntza-plana martxan dago; material hori horretarako erabiliz gero, zaborteziek eta harrobien ustiaketak eragindako ingurumen arloko arazoak murriztu egingo dira.

Azpiegituren plangintzaren arloan, EAEko bizikletabideen lurraldearen arloko plana idazten jarraituko dugu.

Bereziki aipatu beharrekoa da Jaurlaritzaren Kontseiluak 2003ko ekainaren 24an onartu zuen Inbertsio Publikoaren Finantza Laguntzari dagokion 2003-2007 Abiaburu Planaren bidez azpiegiturak bultzatzeko ahalegin berezia egiten jarraitzen dugula.

PORTUAK.

Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzaren helburuak hainbat ardatzen inguruan biltzen dira:

- Itsas ontziei zerbitzuak emateko EAEren portuetan behar diren obra berriak burutuko dira, lehendik daudenen mantenimenduz arduratu eta portu-azpiegituren ustiaketa eta kudeaketa hobetzeko teknologia berriak ezarriko dira.
- Merkatuan dagoen eskariari erantzuteko kirol dartsenak egokitzen eta itsas kirolak sustatzen jarraituko dugu.
- Itsas salbamendua bermatzeko salbamenduko ontziak erosi eta lehendik daudenen mantenimendua egingo da, eta lehorreko azpiegitura ere behar bezala zainduko da.
- Europako kostako garraioa bultzatuko da, errepideko garraioetan nozitzen dugun itomena arintzeko.
- Itsas garraioko profesionalen laguntza emango zaie, Itsas Arduralaritza Eskolako ikastaroen bidez.

METEOROLOGIA ETA KLIMATOLOGIA.

Asimismo, esta Dirección procederá a ejercer las funciones de aprobación de los proyectos de superestructura y equipamiento a redactar por el Consorcio de Transportes de Bizkaia, previos a su licitación por parte del citado Consorcio.

En otro orden de cosas, se seguirá manteniendo una participación activa en los Órganos de Gestión del Consorcio de Transportes de Bizkaia.

4. Planificación de infraestructuras viarias.

En vigencia el "Plan General de Carreteras del País Vasco (1999-2010)", se procederá a la aprobación de su revisión.

Esta prevista una nueva modificación de la Ley reguladora del Plan General de Carreteras para adoptar las modificaciones producidas en la red objeto del Plan.

Se continuará con el desarrollo de la Normativa técnica en carreteras con el objetivo de actualizar el texto legal vigente, Ley 2/1989 de 30 de mayo.

Está en marcha el Plan de ensayos de firmes con escorias para ampliar la capacidad de uso de este material apropiado para firmes que además reduce el problema ambiental de vertederos y explotación de canteras.

En el área de planificación de infraestructuras se continuará con la redacción del Plan Territorial Sectorial de vías ciclistas de la C.A.P.V.

Como mención especial cabe destacar el importante esfuerzo que se continúa realizando para el impulso de las infraestructuras viarias a través del "Plan Marco de Apoyo Financiero a la Inversión Pública para el periodo 2003-2007" aprobado en Consejo de Gobierno el 24 de junio de 2003.

PUERTOS.

Los objetivos de la Dirección de Puertos y Asuntos Marítimos se centran en varias áreas:

- Prestación de servicios a la flota tanto mediante la ejecución de nuevas obras necesarias en los puertos de titularidad de la C.A.P.V. así como el mantenimiento de las ya existentes y la incorporación de nuevas tecnologías que permitan la optimización en la explotación y gestión de las infraestructuras portuarias.
- Continuar con la adecuación de las dársenas deportivas a la demanda existente y la promoción de las actividades náutico-deportivas.
- Asegurar el salvamento marítimo mediante la compra y mantenimiento de las embarcaciones de salvamento y la adecuada infraestructura en tierra.
- Potenciación del cabotaje marítimo europeo para reducir la congestión en el transporte por carretera.
- Apoyo a los profesionales del sector a través de los cursos de la Escuela de Administración Marítima.

METEOROLOGÍA Y CLIMATOLOGÍA.

2007an 2006an aurreratu genuen lan-ildoan jarraitzeko asmoa dugu; orain arte informazio meteorologiko eta klimatologikoko sare moderno bat izatea eta gizarteak zituen informazio-beharrei egoki erantzutea zen lehentasuna, eta horretan jardun dugu. Aurrerantzean, eta aurreko hori erabat atzendu gabe, baliabideak optimizatzea, barruko antolamendua hobetzea eta orain arte egindakoak asentatzen uztea komeni da.

Para el ejercicio 2007, se pretende continuar en la línea de lo adelantado en 2006, tras un periodo en el que, el disponer de una moderna red de información meteorológica y climatológica y dar respuesta a la demanda social de dicha información, ha sido el objetivo fundamental y en ello se han concentrado los esfuerzos. Toca ahora y sin dejar de lado dicho cometido, optimizar recursos, mejorar la reorganización interna y en definitiva asentar las actuaciones realizadas hasta ahora.

PROGRAMA

5111 EGITURA ETA LAGUNTZA

ARDURADUNA

12 GARRAIO ETA HERRI LANAK

ZERBITZU ZUZENDARIA

PROGRAMA

5111 ESTRUCTURA Y APOYO

RESPONSABLE

12 TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS

DIRECTOR DE SERVICIOS

MEMORIA

Egitura eta laguntza programa Zerbitzu Zuzendaritzak eramaten du aurrera, izaera horizontaleko organoa izanik Saileko gainontzeko zuzendaritzei laguntza eskaintzen baitie ezarritako helburuak lortzeko. Egiteko hori bideratzeko hainbat atal bereizi dira Zuzendaritzaren barruan:

- Antolaketa, langileak eta gai orokorrak: Saileko giza-baliabideak kudeatu eta antolatzeko, langileei buruzko politika bideratzeko, eta prestakuntzako eta euskalduntzeko planak aurrera eramateko.
- Lege-aholkularitza: legeak, dekretuak, erregelamenduak eta bestelako arauak egin eta kontrolatzeko aholkularitza juridikoa eskaintzeko.
- Kontratazioa: Sailaren eskumeneoak diren administrazio-kontratazioko espedienteak izapidetu, ebatzi eta formalizatzeko.
- Administrazio eta Finantzen Zerbitzua: Kontrol Ekonomikoko Bulegora bidali aurretik kontularitza-espedienteen gainean kontu hartzea eta kudeatzea.
- Informatika: Saileko ekipamendu eta aplikazioak behar bezala funtzionatzeko behar diren baliabide informatiboak ezarri eta optimizatzeko urratsak egiteko.
- Finantzen plangintza eta analisisa: Sailaren aurrekontua taxutu eta jarraipena egitea, eta europar funtsen eta politika horizontalen kudeaketa, eta ekonomia programa.

Gainera, Zerbitzu Zuzendaritza arduratzen da Eusko Jaurlearitzako gainontzeko sailekiko eta Legebiltzarrarekiko harremanak bideratzeaz, eta erakunde mailako komunikazioarekin zerikusia duten ekintzak, publizitate eta protokoloaren inguruko harremanak, eta interes orokorra duten azterlan eta txostenak eramateaz.

El Programa de Estructura y Apoyo se desarrolla a través de la Dirección de servicios, órgano de carácter horizontal a través del cual se presta apoyo al resto de direcciones del Departamento para la consecución de los objetivos del mismo. Esta tarea se canaliza a través de los siguientes servicios:

- Organización, personal y asuntos generales: desde donde se gestionan y organizan los recursos humanos del Departamento y la política de personal, así como los planes de formación y euskaldunización.
- Asesoría jurídica: para la elaboración y control de leyes, decretos, reglamentos y desarrollos normativos y asesoramiento jurídico.
- Servicio de contratación: para la tramitación, resolución y formalización de los expedientes de contratación administrativa competencia del Departamento.
- Servicio Administrativo Financiero: para la intervención y gestión de los expedientes contables ante la Oficina de Control Económico.
- Informática: a través de donde se canaliza la implantación y optimización de los recursos informáticos necesarios para el funcionamiento de los equipos y aplicaciones del Departamento.
- Planificación y Análisis Financiero: elaboración y seguimiento del presupuesto del Departamento y gestión de fondos europeos y políticas horizontales y programación económica.

Asimismo, desde la Dirección de Servicios se canalizan las relaciones con el resto de Departamentos del Gobierno y con el Parlamento, así como la comunicación institucional, relaciones protocolarias y publicitarias y los estudios e informes de carácter general.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUD.	OBJETIVO ACCIÓN INDICADOR
1. ORGANO NAGUSIAK ETA LURRALDEETAKOAK FINANTZA ETA AURREKONTU, KONTRATAZIO, LANGILE ETA ZERBITZU KOMUN ETA LEGE AHOLKULARITZAREN ALORREAN KOORDINATU, KONTROLATU ETA LAGUNTZA EMATEA.		1. COORDINACIÓN CENTRAL Y PERIFÉRICA, CONTROL Y APOYO DE LOS ÓRGANOS DEL DEPARTAMENTO EN LAS ÁREAS FINANCIERA Y PRESUPUESTARIA: DE CONTRATACIÓN, DE PERSONAL Y SERVICIOS COMUNES Y DE ASESORÍA JURÍDICA.
1.1. Aurrekontuen aurreproiektua egitea.		1.1. Elaboración del anteproyecto del Presupuesto.
1.1.1. Aurrekontuen aurreproiektuak, bilkurak.	1/12	1.1.1. Anteproyecto de presupuestos, reuniones.
1.2. Aurrekontuen jarraipena, lehen kontu-hartzea eta kontrola.		1.2. Seguimiento, intervención previa y control presupuestario.
1.2.1. Kudeaketa-agiriak.	7900	1.2.1. Documentos de gestión.
1.2.2. Aurrekontuak zenbateraino gauzatu diren jakiteko txostenak.	15	1.2.2. Informes sobre el grado de ejecución de los presupuestos.
1.3. Sailaren jarduketa alorreko administrazio-kontratuak.		1.3. Contratación administrativa en las áreas de actuación del Departamento.
1.3.1. Kontratazio-espedienteak.	510	1.3.1. Expedientes de contratación.
1.3.2. Kontratazio-espedienteak zenbateraino gauzatu diren jakiteko txostenak.	48	1.3.2. Cuadros sobre ejecución de los expedientes de contratación.
1.3.3. Kontratazio gaietarako aholkularitza.	155	1.3.3. Asesoramiento en materia de contratación.
1.4. Beste zerbitzuekin elkarlanean Sailaren lege-aholkularitza lana burutzea. Xedapen orokorrak eta hitzarmenak taxutu eta kontrolatzea. Txostenak eta lege-aholkularitza lana, oro har.		1.4. Asesoramiento técnico-jurídico, en coordinación con los distintos servicios, al Departamento. Elaboración y control de disposiciones de carácter general y de convenios, Informes y Asesoría Jurídica en general.
1.4.1. Lege-aholkularitzarekin lotutako jarduketak, arauak, hitzarmenak eta haiek izapidetzeko agiriak taxutzea.	210/60/60/ 340	1.4.1. Actuaciones relacionadas con asesoramiento jurídico, elaboración de disposiciones normativas de carácter general, convenios y documentos de tramitación.
1.5. Langileen alorreko administrazio eta kudeaketa lan arrunta.		1.5. Administración y gestión ordinaria en materia de personal.
1.5.1. Langileei buruzko bilkurak eta agiriak.	150/150	1.5.1. Reuniones y actuaciones documentales de personal.
1.6. Sailaren aginpideko zerbitzu komunak antolatu eta kudeatzea. Argitarapen eta hedapen lana.		1.6. Organización y Administración de los servicios comunes del Departamento de competencia del mismo. Actividad editora y divulgativa.
1.6.1. Ofizioak eta espedienteak.	700/45	1.6.1. Oficios y expedientes.
1.7. Saileko atalak informatizatzea.		1.7. Informatización de las diversas áreas del Departamento.
1.7.1. Ekipo informatikoak erosteko proposamena, ekipoen konponketa eta mantenimendu lana, eta aplikazioak erabili eta ekipoak ustiatzea.	5/50/15	1.7.1. Propuestas de adquisición de equipo informático, reparación y mantenimiento de equipos, explotación de aplicaciones y de equipos.
1.7.2. Komunikazioak eta sarbideak (internet, renting, urrunekoak).	130/200/ 10	1.7.2. Accesos y comunicaciones (Internet, Renting, Remotos).
1.7.3. Instalazioak: aplikazioak, sarbideak, zerbitzuak.	100	1.7.3. Instalaciones: Aplicaciones, Accesos, Servicios.
1.8. Saila bera antolatzea.		1.8. Desarrollar en el Departamento la función de organización.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUD.	OBJETIVO ACCIÓN INDICADOR
1.8.1. Arauak, bilkurak, aginduak eta idazkiak.	15/35/60	1.8.1. Disposición normativa, reuniones, instrucciones y escritos.
2. SAILEKO ORGANOEN ARTEKO HARREMANAK ETA GOBERNUKO BESTE ORGANOEKIKOAK KOORDINATU ETA BEHAR IZANEZ GERO, EZARRITAKO JARDUNBIDEARI JARRAITUZ, LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANAK BIDERATZEA.		2. COORDINACIÓN DE LAS RELACIONES ENTRE LOS DISTINTOS ÓRGANOS DEL DEPARTAMENTO Y DE ÉSTOS CON EL RESTO DEL GOBIERNO Y, EN SU CASO, ENCAUZAMIENTO DE LAS RELACIONES CON EL PARLAMENTO POR EL PROCEDIMIENTO ESTABLECIDO.
2.1. Saileko organoen arteko, gobernuko gainontzeko organoekiko, eta bestelako administrazioekiko harremanak bideratzea, Sailaren jarduketa alorreko irizpideak eta ekintzak bateratu ahal izateko.		2.1. Concertar las relaciones entre los órganos del Departamento y de éstos con el resto del Gobierno y otras Administraciones, para aunar criterios y acciones en ejecución de las áreas de actuación del Departamento.
2.1.1. Bilkurak, idazkiak eta komunikazioak.	10/45	2.1.1. Reuniones, escritos y comunicaciones.
3. SAILEKO LANGILEEN ETA BALIABIDE MATERIALEN HOBEKUNTZA ETA INFORMATIKAKO PLANAREN GARAPENA.		3. OPTIMIZACIÓN DE LOS RECURSOS PERSONALES Y MATERIALES DEL DEPARTAMENTO, DESARROLLO DEL PLAN INFORMÁTICO.
3.1. Langileei eta haien antolaketari dagozkien gaiei buruzko azterlanak egin eta aginpidea duten organoei proposamenak egitea. Sailaren egitura proposatzea. Informatikaren aldetik dauden beharrak aztertu eta organo aginpidedunei horien araberrako proposamenak egitea.		3.1. Estudio y propuesta a los órganos competentes en materia de personal y su organización. Propuesta de la estructura orgánica del Departamento. Estudio de necesidades y propuesta a los órganos competentes en materia informática.
3.1.1. Aplikazio informatikoak.	15	3.1.1. Aplicaciones informáticas (nuevas y/o mejoras).
3.1.2. Arau orokorrak, bilkurak eta kudeaketa agiriak.	5/30/70	3.1.2. Disposiciones normativas de carácter general, reuniones y documentos de gestión.

PROGRAMA
5131 TREN BIDEAK
ARDURADUNA
12 GARRAIO ETA HERRI LANAK
GARRAIO AZPIEGITURAREN ZUZENDARIA

PROGRAMA
5131 FERROCARRILES
RESPONSABLE
12 TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS
DIRECTORA DE INFRAESTRUCTURA DEL
TRANSPORTE

MEMORIA

Programa honen helburua EAEn trenbide-garraioa hobetu eta bultzatzea da. Horretarako, bada, hainbat jarduketa burutuko dira:

- Azpiegitura berrien plangintza egin, diseinatu eta eraikitzeko eta jadanik martxan daudenak modernizatu eta atontzeko jarduketak, bai trenbide konbentzionalari, bai eta hiru lurralde historikoetako tranbiei dagokien ere.
- Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos, SA enpresa publikoak eskaintzen duen zerbitzu-maila ona mantentzeko jarduketak.

Maiatzaren 21eko 6/2004 Legearen bidez Red ferroviaria Vasca – Euskal Trenbide Sarea sortu da. Aurrerantzean, beraz, erakunde hori arduratuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eskumeneko sarean egin beharreko obrak kontratatzeaz eta azpiegiturak kudeatzeaz, eta Eusko Trenbideak SA trenbide garraioko operadore bihurtu da, eta garaia heltzen denean beste enpresa batzuekin lehia jardungo du.

Lehenengo atalean aurreikusitako jarduketetan EAEn ardurapeko trenbide-sareko ekintzak sartzen dira, batez ere, Eusko Trenbideak SA sozietateak ustiatzen dituen Bilbo eta Donostiako hurbileko lineetako eraikuntza, birmoldaketa eta modernizazio proiektuak eta obrak. Atal horretan bertan sar daitezke, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldean Antolamendurako Trenbide Sarearen Arloko Planean eta Euskotren XXI Plan Estrategikoan deskribaturiko jarduketak ere.

Ahalegin berezia egiten jarraituko dugu Durangon trenbidea lurperatzeko, Amorebieta-Durango, Traña-Berriz, Añorga-Errekalde, Loiola-Herrera eta Erretereria-Oiartzun tarteak bikoizteko eta Lebarioko tailer eta kotxetegiak egiten hasteko obretan. Gainera, hainbat geltoki berri egiten edo berritzen hasiko gara: Ardantzakoa (Eibar), Fanderiako (Erretereria) eta Oiartzungoa.

Tranbiak direla-eta, Vitoria-Gasteizko obrekin jarraituko dugu, eta Bilboko Basurto-Errekaldeko tartekoei ekingo zaie; eta Donostialdeko, Debagoieneko eta Nerbioi Behereko tranbien bideragarritasun-azterlanek eta eraikuntza-proiektuak egiten jarraituko dugu.

El presente programa persigue la mejora y potenciación del transporte ferroviario en la C.A.P.V. Para ello, se llevarán a cabo una serie de actuaciones encaminadas principalmente a:

- La planificación, diseño y construcción de nuevas infraestructuras y la modernización o adecuación de las existentes, tanto de ferrocarril convencional como de tranvías en los tres territorios históricos.
- Mantenimiento de un elevado nivel del servicio que presta la empresa pública de Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos, S.A.

La creación mediante Ley 6/2004, de Red ferroviaria Vasca – Euskal Trenbide Sarea, ETS, hará descansar en este ente la contratación de las diferentes obras a realizar en las redes de competencia de la C.A.P.V., así como la gestión de las mismas, de tal manera que la empresa Eusko Trenbideak, S.A. se convierta en un operador de la red ferroviaria, que en su momento podrá entrar en competencia con otras empresas.

Las actuaciones contempladas en el primer grupo se pueden clasificar en actuaciones en la red de ferrocarriles competencia de la C.A.P.V., referidas principalmente a los proyectos y obras de construcción, remodelación y modernización de las líneas de cercanías de Bilbao y San Sebastián explotadas por la empresa pública Eusko Trenbideak, S.A. Asimismo, en este primer grupo se pueden enclavar las actuaciones descritas dentro del Plan Territorial Sectorial de la Red Ferroviaria en la Comunidad Autónoma del País Vasco y del Plan Estratégico EuskoTren XXI.

En especial se hará hincapié en la continuación de las obras del soterramiento de Durango, desdoblamiento de los tramos Amorebieta-Durango, Traña-Berriz, Añorga-Rekalde, Loiola-Herrera y Erretereria-Oiartzun y construcción de los talleres y cocheras de Lebario. Se iniciará la construcción de nuevas estaciones y/o reforma de las de Ardantzakoa (Eibar), Fandería (Erretereria) y Oiartzun.

En materia de tranvías, se continuarán las obras del tranvía de Vitoria-Gasteiz y el tramo Basurto-Rekalde del Tranvía de Bilbao, continuándose con los estudios de viabilidad y proyectos de construcción de tranvías en Donostialdea, Alto Deba y Bajo Nervión.

Eta bestetik, trenbide-pasaguneei buruzko legeria berriak, horiek kentzeko obrak arintzea behartzen du. Lemoa, Ermua eta Aia-Orioko trenbide-pasaguneei kentzeko obrek jarraituko dugu, eta Eibar (Txarrakoa), eta Oiartzungo obrek hasiko gara.

Lehenengo nahiz bigarren atalean jasotako ekintzak, Garraio eta Herri Lan Sailak, bere bitartekoak erabiliz, nahiz ETS Euskal Trenbide Sareari egindako ekarpenaren bidez eramango ditu aurrera.

Tranbien arloko jarduketak pixkanaka ETS-k hartuko ditu ere bere gain.

Jarduketa hauekin tren berriak eskuratu, geltokiak modernizatu eta zerbitzuak kalitate nahiz kantitate aldetik hobetzeko politika aurrera eramanez ahal izango da, horrela, erabiltzaileei ematen zaien zerbitzua hobetzeko.

Por otro lado la nueva legislación de pasos a nivel obliga a agilizar las obras de supresión. Se continuarán con las obras de supresión de los pasos a nivel de Lemoa, Ermua y Aia-Orio y se iniciarán los de Eibar (Txarrakua) y Oiartzun.

Tanto las actuaciones contempladas en el primero como en el segundo grupo se llevarán a cabo por parte del Departamento de Transportes y Obras Públicas por sus propios medios o mediante la aportación a Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea (ETS).

Las actuaciones en materia de tranvías irán siendo también asumidas paulatinamente por ETS.

Estas actuaciones permitirán continuar con la política de renovación de flota, de modernización de estaciones y de incremento cualitativo y cuantitativo de la oferta de servicios, en aras a mejorar la calidad del servicio a los usuarios.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUD.	OBJETIVO ACCIÓN INDICADOR
<p>1. EAE-KO TRENBIDE AZPIEGITURAREN HOBEKUNTZA.</p> <p>1.1. Eusko Trenbideak SAK ustiatutako trenbide lineen azpiegiturak garatu, atondu eta hobetzea.</p> <p>1.1.1. Trenbide-pasaguneei kentzeko proiektuak idaztea.</p> <p>1.1.2. Trenbideak bikoizteko tartekak.</p> <p>1.1.3. Trenbideak bikoizteko proiektuak idaztea.</p> <p>1.1.4. Salgaien garraio-zentro intermodaletarako proiektuak.</p> <p>1.2. Herrietan dauden trenbide-pasaguneei kendu eta berrantolaketa lanak egiteko lankidetzak-hitzarmenak sinatzea kasuan kasuko udalekin.</p> <p>1.2.1. Kendutako trenbide-pasaguneei.</p> <p>1.3. Zaintza eta mantenimenduko planen finantzaketa.</p> <p>1.3.1. Trenbide kilometroak.</p> <p>1.4. Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Plana.</p> <p>1.4.1. Metro arinen eraikuntza.</p> <p>1.4.2. Tranbien bideragarritasunari buruzko azterlanak.</p>	<p>1</p> <p>6</p> <p>4</p> <p>1</p> <p>5</p> <p>100</p> <p>3</p> <p>2</p>	<p>1. LA MEJORA DE LA INFRAESTRUCTURA FERROVIARIA EN LA C.A.P.V.</p> <p>1.1. Desarrollo, adecuación y mejora de las infraestructuras ferroviarias de las líneas explotadas por Eusko Trenbideak, S.A.</p> <p>1.1.1. Redacción de proyectos de supresión pasos a nivel.</p> <p>1.1.2. Obras de desdoblamiento de vías: Tramos.</p> <p>1.1.3. Redacción de proyectos de desdoblamiento de vías.</p> <p>1.1.4. Proyectos de centros Intermodales de transporte de mercancías.</p> <p>1.2. Formalización de convenios de colaboración con Ayuntamientos y Diputaciones para la supresión y reordenación de los pasos a nivel existentes en cada municipio.</p> <p>1.2.1. Pasos a nivel suprimidos.</p> <p>1.3. Financiación de los planes de conservación y mantenimiento.</p> <p>1.3.1. Kilómetros de línea.</p> <p>1.4. Actuaciones encuadradas en el Plan Territorial Sectorial de la Red Ferroviaria en el País Vasco.</p> <p>1.4.1. Construcción de metros ligeros.</p> <p>1.4.2. Estudios de viabilidad de tranvías.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUD.	OBJETIVO ACCIÓN INDICADOR
<p>1.4.3. Tranbien trazadura edo-eta eraikuntza proiektuak idaztea.</p> <p>2. EAE-KO GARRAIO SISTEMA ARRAZIONALIZATZEA ETA BENETAKO ALTERNATIBA IZANGO DEN TRENBIDE ZERBITZUA ESKAINTZEA.</p> <p>2.1. Trenbide eta errepide bidezko garraio zerbitzuak indarrean dauden xedapenei jarraikiz ustiatzeko Eusko Trenbideak SArI diru-baliabideak ematea. Helburu zehatzak sozietatearen memorian jasoko dira.</p>	2	<p>1.4.3. Redacción de proyectos de trazado y/o construcción de tranvías. Tramos.</p> <p>2. RACIONALIZACIÓN DEL SISTEMA DE TRANSPORTE EN LA C.A.P.V. OFRECIENDO UNA ALTERNATIVA VÁLIDA DE SERVICIO FERROVIARIO.</p> <p>2.1. Dotación a Eusko Trenbideak, S.A. de los medios económicos para la explotación del servicio de transporte por ferrocarril y carretera conforme a las disposiciones vigentes, recogándose los objetivos operativos concretos en la memoria de la Sociedad.</p>

PROGRAMA

5133 BILBOKO HIRI TRENBIDEA

ARDURADUNA

12 GARRAIO ETA HERRI LANAK

GARRAIO AZPIEGITURAREN ZUZENDARIA

PROGRAMA

5133 FERROCARRIL METROPOLITANO DE BILBAO

RESPONSABLE

12 TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS

DIRECTORA DE INFRAESTRUCTURA DEL TRANSPORTE

MEMORIA

Programa hau Bilboko Hiri Trenbidearen eraikuntza bultzatu eta, horrela, Ibaizabal Beheko garraio publikoari irtenbide egoki bat emateko sortu zen. Programa honetan BHTa eraikitzeke obretarako behar diren diru-baliabideak eta eraiki ondoren ustiatu ahal izateko behar direnak sartzen dira; horretarako Bizkaiko Garraio Partzuergoari kasuan kasuko transferentziak egingo zaizkio.

2007an zehar Bilboko Hiri Trenbidearen Sestao eta Kabiezes arteko eta Ariz-Basauri tarteko obrak egingo dira. Gainera, Urbinagako aldaguneko eta Mamarigako sarbideko obrei ere ekingo zaie, eta Getxon Maidagango trenbide-pasagunea kentzen hasiko dira.

Azkenik, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareak egindako ingeniari-tza, jarraipen eta obra-zuzendaritzako kontratuak egiteko behar diren baliabideak ere jaso dira programan.

Este programa fue creado con el objeto de impulsar la construcción del Ferrocarril Metropolitano de Bilbao, elemento fundamental para solucionar adecuadamente el transporte público en el área del Bajo Nervión. En el mismo se contemplan las dotaciones económicas necesarias para la ejecución de las obras del F.M.B. así como para su explotación mediante las correspondientes transferencias al Consorcio de Transportes de Bizkaia.

Durante el año 2007 estarán en proceso de construcción las obras comprendidas entre Sestao y Kabiezes de la línea 2 del F.M.B. y el tramo Ariz-Basauri. Asimismo, se acometerá la construcción del intercambiador de Urbínaga y las obras de acceso a Mamariga, iniciándose las obras de eliminación del paso a nivel de Maidagan en Getxo.

Finalmente, el programa contempla los recursos necesarios para la suscripción de los contratos de ingeniería, seguimiento y dirección de obra, realizados por Red Ferroviaria Vasca – Euskal Trenbide Sarea.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUD.	OBJETIVO ACCIÓN INDICADOR
1. GARRAIO PUBLIKOA BILBOKO HIRIALDEAN HOBETO ERROTU DADIN BULTZATZEA.		1. MEJORA DE LA INTEGRACIÓN DE LA RED DE TRANSPORTE PÚBLICO EN EL ÁREA METROPOLITANA DE BILBAO.
1.1. BHTren 2. linearen eraikuntza (Sestao-Kabiezes bidegunea eta Ariz-Basauri).		1.1. Construcción de la línea 2 (Sestao – Kabiezes y Ariz-Basauri) del F.M.B.
1.1.1. Gauzatzen ari diren obra zibileko kontratuak.	4	1.1.1. Contratos de obra civil en ejecución.
1.1.2. Gauzatzen ari diren instalazio kontratuak.	1	1.1.2. Contratos de instalaciones en ejecución.
1.1.3. Ekipamendu kontratuak.	1	1.1.3. Contratos de equipamiento.
1.2. Maidagango trenbide-pasagunea kentzea (Getxo).	1	1.2. Eliminación del paso a nivel en Maidagan (Getxo).
